



txi kitto!



Jaietarako prest?

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maider Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Silbia Hernandez.

Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



Andereñok gelan:

- Maria, esan
edukazioarekin
lotutako gauzak.

Eta Mariak:

- Liburua, tiza eta koadernoak.
- Oso ondo, Maria. Ea, Memin, orain zuk.

Eta Memin-ek esaten du:

- Etxeko zapatilla
- Etxeko zapatilla? – andereñok. Memin, beste
astakeria bat. Nola izango da zapatilla?

Memin-en erantzuna:

- Bai, nire amaren zapatillari esker oso edukazio
ona daukat.



Maraka batek esaten
du:

- Musika jotzen
dugun bakoitzean
sekulako buruko minez
bukutzen dut!

Eta txirulak esaten du:

- Ez zaitetz hainbeste
kexatu! Nirea okerragoa
da! Ipurdia adurrez beteta
bukutzen dut nik!



Hortzetako eskuilak
esaten du:

- Batzuetan oso lan txarra
dudala pentsatzen dut...

Eta komuneko paperak
erantzuten dio:

- Bai??? Ziur zaude???





Bi puxika basamortutik
doaz eta batek esaten du:
- Kontuz!!!
Kaktusssssssssssssssssssss



- Doktore jauna! Ezin dut
bururik altxa, bakarrik
egiten du barre, ez dut
jendarekin hitz egiten eta
baten batek hitz egiten badit
ez diot arretarik jartzen. Kaikua ematen dut!
Zer daukat?
- Whattsappa!!!



- Legoek nola esaten dute
geroarte?
- Lego arte






- Elefanteek zergatik
ez dute ordenagailurik
erabiltzen?
- Saguei beldurra dietelako.




Jaimitok aitari:
- Aita, komuna bueltaka
ibiltzen da?
- Ez, seme, ez.
- Ai ene, orduan
garbigailuan egin dut
pixa!



Denborapasak





4 Gurutzegrama

- 1- Edari bat da. Gorria, txuria edo beltza.
- 2- Gardena da, eta itsasoetan edo ibaetan aurkitzen da.
- 3- Mutil baten izena da.
- 4- Oso langilea eta lur azpian bizi den intsektua.
- 5- Hor estalagmitak aurkituko dituzu.
- 6- Gure gorputzean daude eta oso gogorrak dira.
- 7- Zuhaltzetan egiten dute txoriek.


HIZKI ZOPA HONETAN 6 KOLORE

DAUDE IA AURKITZEN DITUZUN.

U	R	D	I	N	A	Q	W	E	R	T	Y
N	Y	C	F	E	H	M	Ñ	Y	G	Ñ	U
M	G	Ñ	T	Y	R	W	L	K	L	A	I
Y	L	G	Y	H	O	R	I	A	E	W	O
N	T	D	H	D	S	F	Y	B	M	I	P
I	K	Ñ	G	M	A	G	H	G	M	L	A
C	A	Y	C	H	D	L	L	R	I	T	S
M	O	R	E	A	R	Ñ	R	Ñ	M	G	D
B	L	S	T	Z	X	O	H	A	K	Y	F
H	F	G	R	B	E	R	D	E	A	H	G
B	E	L	T	Z	A	Y	D	I	K	Ñ	H
G	J	I	Ñ	O	P	C	H	T	R	K	J

Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak uztailek 6 baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Julen Albistegui

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea Julen Albistegui izan da. Liburua eta ...eta kitto!ko kamiseta eraman ditu etxera Julenek. Zorionak!!!

Miren Gisasola

Mugi Panderoa



San Juanetan bost urte izango dira Mugi Panderoa taldea sortu zela. Hasieran Irati, Haizea, Eneritz eta Mirenek osatzen zuten taldea, baina ikasketak eta lan-kontuak zirela, batzuek taldea laga eta kide berriak sartu dira. Gaur egun zazpi gaztek osatzen dute taldea: Julen, Markel, Andoni, Xabier, Alaitz eta Miren. Udarako agenda bete-betea dute, eta plazarik-plaza jardungo dute euren musikarekin bazterrak girotzen.



- **Uda ala negua?**

Negua.

- **Musika tresna bat?**

Trikitixa.

- **Abesti gogokoena?**

Lokaleko leihotik.

- **Musika ez den beste zaletasun bat?**

Kirola, futbola.

- **Kolorerik politena?**

Urdina.

- **Animalia gustokoena?**

Astoa.

- **Zer 3 gauza eramango zenituzke irla batera?**

Ura, sua eta lagunak.

- **Sekula jantziko ez zenukeen arropa bat?**

Gaur egun modan dauden praka oso motz horiek.

- **Eta zure armairuan falta ez dena?**

Kamiseta urdin bat.

Izena: Miren

Abizena: Gisasola

Jaioterria: Eibar

Jaiotze-data: 1992/12/4



- **Birziklatzen duzu?**

Bai.

- **Euskara osasuntsu dago?**

Leku batzuetan.

- **Zer egin bultzatzeko?**

Dakienaren konpromiso zorrotza.

- **Zein da taldeko bihurriena?**

Markel (bateria).

- **Hiru hitzekin laburtu taula gainean sentitzen duzuna:**

Gozamena, poztasuna eta tentsioa.

- **Zerk pozten zaitu?**

Familia, lagun eta ingurukoak osasuntsu, gustura eta pozik ikusteak.

- **Zerk haserretu?**

Faltsukeriak.

- **Gehien gustatzen zaizun jatekoa?**

Arraina.

- **Eta gutxien?**

Baba beltzak.

- **Ametsetako oporrak nora?**

New York-era.

- **Bete zaizun amets bat?**

Musika talde bat sortzea eta futboleko jokatzeko.

San Juanak 2018



Ekainak 23, zapatua

10:30: Santuari zapia jarri Ospitalean.

12:00: Untzagan, koadrilak bildu, Ustekabe fanfarrearekin Kalejira Untzagaraino.

13:00: Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzagaraino.

13:30: Udaletxetik pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.

13:45: Udaletxean, sanjuanetako kartel-lehiaketaren sari-banaketa.

17:30-20:30: Urkizun, puzgarriak umeentzat.

17:00-21:00: Untzagan klarionez tailerra: sanjuanetako munduko kartel handiena.

19:00: Urkizutik, Lizarrako erraldoi eta buruhandien kalejira Lizarrako Dultzaineroekin.

19:00: Untzagatik, Irulitxa fanfarrearekin kalejira.

19:00: Ego Gain, Untzaga eta Calbeton, Zuloagatarren eta T. Etxebarria kaleetatik "Sardina Bakalau" kale-antzerkia.

23:00-04:00: Berbena Lisker taldearekin Untzagan.

23:00: Dantza Garaikidea taldearen dantza-ikuskizuna eta San Juan Sua. Untzagan.

00:00: Danborradaren irteera.



Ekainak 24, domeka

11:00-14:00 eta 18:00-20:00: Untzagan, “Koloreak munstroak” jolas-parkea.

17:00: Astelena frontoian, pilota jaialdia.

18:00: Untzagan, “San Juan city secrets”.
Herrian zehar egingo den makro-ginkana joko koadrilentzat.

18:30: Urkizutik, “JAIXotasunak” kale-antzerkia.

18:30: Untzagan, “Babo Royal” ikuskizuna.

19:00: Umeen danborrada.

19:30: Untzagatik, Siziliatik etorritako Tinto Brass Bandaren kalejira.

20:30: Untzagan, umeen pregoia eta Alardea.

22:00: Erromerixa Untzagan.

23:30: Soka Dantza Untzagan.

00:00: Suzko erroberak.

00:15-03:00: Untzagan, berbena Jamaica Show-ren eskutik.



Ekainak 25, astelehena

12:30:
Untzagan, Euskal Jaialdia.

18:00-21:00: Untzagan, “Ezinen faria” jolas-parkea.

18:00: Urkizutik, Bilboko Ondalan konpartsarekin erraldoi eta buruhandien kalejira.

18:00: Untzagatik, kalejira Africa Baj Yay taldearekin.

19:30: T. Etxebarria kalean, “Flux” kale-antzerkia.

23:00: Suzko erroberak.

Ekainak 27, eguaztena

16:30: Karmen kaleko parkean, umeentzako txokolate-jana.

17:00: Karmen kaleko parkean, umeentzako jokoak.

19:00: Karmen kaleko parkean, Gorriti eta bere abereak.





etxeko artista

Banderatxoa

Zuen logelak apaintzeko banderatxo politak egiten ikasiko duzue eskulan honekin. Zeintzuk dira zuen koloreak?

Materialak:

- Folioak
- Guraizeak
- Kola txuria
- Egurrezko hagaxka
- Artilea
- Tela txuria
- Arropentzako errotulagailuak
- Arkatzak



Pausoak:

1. Hagaxka 2 edo 3 zatitan moztu banderatxoaren neurrira egokitu arte.
2. Zure banderatxorako nahi duzun formarekin moztu folioak.
3. Moztutako zatiaren azpian tela jarri, baina alde bakoitzean zentimetro bat utziz (tela folioaren gainetik tolesteko).
4. Foliotik kanpo dagoen tela zatia folio gainean tolestu eta itsatsi, hagaxka kokatuko dugun tokia ezik. Zati hori itsasteko, hagaxka jarri, eta gero tela tolestu eta itsatsi.
5. Buelta eman eta banderatxoa apaindu. Horretarako marrazki bat egin dezakezu, mezu bat idatzi... nahi duzuna!
6. Artile zati bat moztu eta hagaxkaren ertzean lotu banderatxoa horman eskegi ahal izateko. Toke pertsonala emateko, artilearekin borlatxoak egin eta banderatxoaren altuera ezberdinetan itsatsi ditzakezu.



Arrain itxurako imana



Eskulan honekin ez dituzu klip gehiago galduko! Arrain erabilgarri hau egiteko indarra daukan iman bat behar dugu, baina egunkari orriekin estaliko dugu lehenik, imanaren inguruan bola bat egin arte. Kartoi zati batean arrainaren buztana marraztu eta guraizeekin moztu. Arrainaren buztana egunkari orriekin egindako bolari itsatsi eta forma eman margolari-zinta erabiliz. Ondoren, margotu eta apaindu zure gustura. Margoa lehortzen denean, berniza eman babesteko.



Tiramisua

Osagaiak

- 450g. mascarpone gazta
- 160g. azukre
- 7 arraultza gorringo
- 3 arraultza zuringo
- Kakao hautsa
- 250g kafe
- 200g bizkotxo



Nola egin tiramisua?

Kafea prestatu eta hozten utzi. Zuringoak elur-punturaino irabiatu eta hozkailuan gorde.

Nola egin mascarpone krema

- Beste ontzi batean gorringoak azukrearekin batera irabiatu bere bolumena hirukoiztu arte, eta poliki-poliki mascarpone gazta gehitu masa leuna, pinporta gabea eta harroa lortu arte.
- Elur-punturaino irabiatutako zuringoak gehitu mugimendu ingurutzailerekin osagai guztiak ondo batu arte, eta erreserbatu.



Tiramisua kapetan egin

- Ontzi batean kafe pixka bat bota eta bizkotxoak busti poliki-poliki. Lehen kapa osatu bizkotxoekin.
- Kapa hori aurretik prestatutako kremaren erdiarekin estali eta kremaren gainean bizkotxo gehiago jarri kafearekin busti eta gero.
- Crema gehiago jarri bizkotxoen gainean eta kakao hautsa bota gainetik.
- Hozkailuan sartu lau orduz gutxienez, baina gomendagarriena gau osoa lagatzea da.

TI-TA

Caprese entsalada

Caprese entsalada italiarra prestatzen errezenetarikoa den entsalada da, eta hori entsaladak prestatzea oso erraza dela! Lehenik eta behin, tomatea eta mozzarella gazta xaflatan moztu, eta osagai biak nahasten dituzun bitartean albahaka hostoak sartu. Prest dagoenean, oliba olio bota gainetik, Modena ospina pixka bat bota eta gatzaz eta piperraz zuen gustura ondu.



San Andres eskolako 5. mailako ikasleek gai nagusi bat lantzen dute hiru hilero, eurek aukeratutako gai bat. Talde bakoitzak bere proposamena egiten du eta, gero, gehien gustatzen zaiena bozkatzeko dute. Hondamendi naturalen inguruan egin dute lan oraingoan eta asko ikasi dute, gustora gainera! Hawaiko Kilauea eta Guatemalako Fuego sumendiek ez daukate sekreturik eurentzat.

Zer ikasi duzue hondamendi naturalen inguruan?



Miren Garcia
11 urte

Gauza askok harritu naute gai honen inguruan ikertzen joan garen heinean. Adibidez, ez nekien ezer geruzei buruz! Plakak, geruzak, sumendiak, tsunamiak, meteorologia... denetarik ikasi dugu. Gainera, taldeka batu eta gai ezberdinen marrazkiak egin ditugu muralean, landutakoa azaldu eta ikastetxeko pasilloan jartzeko.



Ekain Gallastegui
11 urte

Benetan harritzekoa izan zen geruzak zer diren ikastea, geruza ezberdinetan nolako tenperaturak dauden eta abar. Bestetik, lurrikarak nola sortzen diren ere ikasi dugu. Nik pentsatzen nuen lurrik talka egiten duelako sortzen direla, baina plaka tektonikoez eragiten dute.



Unax Garcia
10 urte

Hasieran 'Naturaren indarra' izenburua jarri genion lan guzti honi, baina irakasle batek esan zigun grabitazio indarrak eta indar magnetikoak sartzen direla arlo horretan, eta guk ikasi nahi genuena izendatzeko hobe zela 'Hondamendi naturalak' izenburua erabiltzea. Nik ere ez nekien geruzak zer ziren eta magma mantuan sortzen dela ikasi dut.



Aner Poves
11 urte

Eskolan asko ikasteaz gain, Zumaiara joan ginen Flyscha ikustera. Bi plakek talka egitean sortu zen Flyscha, bi liburu elkarren kontra sakatzerakoan gertatzen den moduan. Milioika urte dituzte bertan ikusten diren geruzek! Gainera, plaka horiek 8 kilometroko luzera dutela esan ziguten. Lanak taldeka aurkezten ditugu, baina eskolako lanez gain, informazio gehigarria ekartzen dugu etxetik.



Nora Osoro
10 urte


Sumendiaren laba nukleoan sortzen dela pentsatzen nuen, baina mantuan sortzen da. Sumendietan aditu bat etorri zen hitzaldia ematera, Iñigo Gorrotxategi, eta bitxikeria asko kontatu zizkigun. Adibidez, Italiako sumendi batek 20 minutuan behin errautsa botatzen duela esan zigun. Hor inguruan jendea bizi da, baina laba toki beretik doa beti eta lasai bizi dira.



Nerea Untzetabarrerenetxea
10 urte

Tsunamiaren gaia landu genuenean maketa antzeko bat egin genuen tsunamiak nola sortzen diren ikusteko. Toki zabala behar genuen eta patiora joan ginen, eta tsunamiak sortzeko lau modu ikusi genituen: meteoritoen bitartez (harri bat bota genuen), luiziengatik (hondarra bota genuen uretara), plaka tektonikoen talkaren ondorioz (bi egur zati sartu genituen eta talka egin), eta pitzaduraren bitartez (zulagailua jarri genuen baldearen azpian eta jo egin genuen).

zer irakurri




Pauso alaien eguna **6 urtetik aurrera**

Gaur goizean pauso alaiak sortzeko botak jantzi ditut. Bota horiei abestea, espaloietan zirriborroak margotzea eta putzuetan igeri egitea gustatzen zaie, eta beti-beti joan nahi dudan lekura eramaten naute.



Limonada-botilako jainua **8 urtetik aurrera**

Cristina Monzón hiriko geltokian dago aitarekin, Teruelerako tren hartzeko zorian. Berandu da, hotz egiten du eta Cristina egarri da. Azkenean, Limonada Burbuilatsua-ren botila lortu eta ireki egin du; baina botilatik ez da edari burbuilatsurik atera: itxaroten ez zuen itzelezko gauza bat atera da. Gauza horrek Cristinaren, aitaren eta aitak entrenatzen duen saskibaloiko taldearen bizimodua aldatuko du... Jakin nahi duzu gauza hori zer edo nor den?



Safariko misioa **10 urtetik aurrera**

Afrikako sabanan jirafa zuri bat desagertu da, ale bitxia da eta masaiek jakingo moduan gurtzen dute. Agatha eta Larry Misteri lehengusu-lehengusinak Afrikara joango dira beste abentura bat bizitzeko.

“Azeitero binagrero” (Urkizu ikastetxea)

Urkizuko ikasleek jolas dibertigarri hau aurkeztu digute. Zuen gurasoek ere, ziur asko, ezagutuko dute, aspaldikoa da-eta.

Nola jolasten da?

- Zuetako **bat makurtu** egiten da eta gainontzekoek inguratu egiten dute.
- Abestia abesten dute eta amaieran, makurtuta dagoenaren **bizkarrean, lau figuretako bat egiten dute** eta makurtuta dagoenak asmatu egin behar du.
- **Ez badu asmatzean berriro** hasten da kantua, eta **asmatzen badu, besteak korrika** irtengo dira. Harrapatzen duenari egokituko zaio hurrengoan makurtuta egotea.

BIDEOA:

<http://etakitto.eus/txikitto/Urkizu.html>

jolastokixan jolasian



Azeitero binagrero
zer daukazu kolkuan
zorri haundi bat lepuan
zer da hau?
karramarro, sardinesto, labantxoa, artazitxoa

AMAÑA ikastetxeko 6. mailako ikasleok lan bat egin dugu Guggenheim museoarekin, arte-ikasbide izenekoa. Gure proiektua komunikazioari buruz izan da eta ekainaren 4an aurkeztu genuen. Hizkuntza nagusia, komunikabide bezala, euskera izanda ere, beste hizkuntza asko aztertu ditugu, baita zeinuen ere, gelan ume gor bat dugu-eta. Proiektu honen barruan aukera izan dugu New York-eko talde batekin harremanetan jartzeko eta gutun-truke bat egin dugu email bidez. Esperientzia ahaztezina!



Kaixo **ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxetik! Maiatzean zehar ere hainbat irteera eta ekintza izan ditugu eta jada ikasturtea bukatzeaz dagoela-eta, buru-belarri gabiltza lanean kurtso amaierako jaialdia eta azken eguna prestatzen. Ondo amaitu ikasturtea eta gozatu oporretan!



URKIZU eskolako 3. zikloak Euskaraz Blai irteera izan zuen Arantzara. Bertan 3 egun egin zituzten eta primeran pasatzeko aukera izan zuten. Era berean, orain

dela egun batzuk Otxandion Orientazio Topaketak ospatu ziren eta gure 5. eta 6. mailakoek bertan hartu zuten parte. Oso egun interesgarria izan zen eta datorren urteak errepikatzeko gogoz etorri ziren. Eta ikasturte amaierari begira, gure eskolan egingo den giza mosaiko erraldoia prestatzeko ensaioekin hasi gara. Ia dena ongi ateratzen zaigun!

Opor usaina jada! **LA SALLE ISASIN** Ikasturteari amaiera emateko txango pila bat izan ditugu maiatzean. 4. mailakoak Arantzazun egon ziren artzain mundua ezagutzen eta 5. mailakoak taloak egin zituzten Lasturren, goxo-goxoak gainera! 1. mailakoak Basondon egon ziren naturaz gozatzen. Ekainaren 20an kurtso bukaerako jaialdia ospatu genuen eta arratsaldean agurra egin genien 6. mailakoei. Ondo pasa oporrak denok eta bueltan elkar ikusiko dugu!



J. A. MOGEL, kirola eta euskara bat!!

Ekainaren 2an XXI. Kirola Euskaraz Bizi ikastolako jaialdia ospatu genuen. Hasiera batean, eguraldia lagun izango ez genuela uste genuen. Usteak erdi ustel! Ateri esnatu zen larunbat goiza eta festa giroan kirolaz, euskaraz eta lagunartez gozatzeko egun paregabea izan genuen!

Ekainaren 5ean, Eibar-Ermua Unibertsitateko antzokian, **ALDATZE**ko 6. mailako ikasleek gurasoen eta Lehen Hezkuntzako beste ikasle guztien aurrean euskaraz “Esaten omen dute...” eta ingelesez “Tangala Danba” antzezlan dibertigarriak eskaini zizkiguten. Lan bikaina! Zorionak!





ipuin

Koloretako ilea duen neska

Azken egunetan, koloretako ilea duen neska bat ikusten dut nire aurrean eserita eta gero desagertzen da.

Tokiaren arabera, bere ilearen kolorea aldatu egiten da. Hondartzan ihusi nuenean urdin kolorekoa zen, aldiz eskolan beltza zeukan.

Egun batean, berarengana gerturatu nintzen. Oso ondo usaintzen zuen bere ileak, eta ihutzera joan nintzenean, desagertu egin zen berriro.

Beste batean, bere begiak ihusi nituen. Bat marroia zen baina bestea... More kolorekoa zen! Edo hori uste nuen...

Ikusten dudak hurrengo aldian, berarekin hitz egingo dut, bai. Erabakita dut. Eta bere laguna egingo naiz. Edo saiaturko naiz behintzat... Oso misteriotsua da neska hori! Nire imaginazioa izango da? Seguru baietz. Azkenaldian gaizki deshantsatzen ari naiz, hori izango da. Edo ez?

Nahia Garitaonandia





zu margolari